

{ analisia } **Maddi TXINTXURRETA AGIRREGABIRIA** Kazetaria

Palestinaren hasiera guztiak

Minutu-
orra-
tzak tik-
tak eta
albis-
teak ai-

rez, lurrez eta itsasoz han; pape-
rez, irudiz eta ahotsez hemen.
Urriaren 7an abiatutako konta-
ketara batu dira 16.000 hildako
«inguru», esan daiteke, «mo-
mentuz». Urriaren 7 hura –talde
palestinarrak batzuek, tartean Ha-
masek, estatu sionistaren kon-
tra egindako eraso handiaren
eguna– zerbaiten hasiera izan
bazen, zenbat hasiera bizi izan
ditu Palestinak?

Egun hartatik, «Gaza bonbar-
datzen ari dira, eta komunikabi-
deek ere bonbardatzen gaituzte,

Kontakizun hau duela ehun
urte baino gehiago hasi zen
eta 2023ko urriaren 7an
bukatu. Jaldia Abubakra
palestinarrak kolonizazio
sionistaren sustraletara egin
zuen Zumaian emandako
hitzaldi batean.

albiste faltsuekin, erresistentzia
palestinarra kriminalizatuz». Jaldia Abubakrarenak dira hi-
tzok. Minutu-orratzetan eta
zenbakiz neurtzen diren gataz-
kei atzera begirako arnasa lu-
zeak eskaintzeak balio izaten du
maiz larritasunari ulerkera
eransteko, eta horretan lagun-
du zuen Abubrakak hilaren 9an
Zumaia Emakumeon Etxean.

Palestinarra da. Gazan jaio
zen eta zerrenda bizi izan zuen
bederatzi urte bete arte, gero
Egipton bizi izan zen, beste be-
deratzi urtez, eta handik Estatu
espainiarrera, 18 urterekin, gaur
arte. Alkarama Emakume Pales-
tinaren Mugimendua sortzen
lagundu zuen eta Israelen kar-
tzeletan preso diren palestina-
rrekiko nazioartean elkartasun
sarea josten duen Samidoun
taldeko kidea da, besteak beste.

Hitzaldia eman eta bi astera,
haren lehengusu eta ilobak hil
ditu Israelek, eta ahizpa eta bes-
te iloba bat zauritu.

Horren intereseko

Lehenengo hasiera zein izan
zen ez da erraza esaten, baina
nonbaitetik abiatu behar. Ehun
urte atzera? 1917an sionistek Pa-
lestina «etxe nazional» gisa har-
zezaten gonbit formala jaso
zuen britainiarren Balfourren
Deklarazioaren garaira?

Edo atzerago. Lurralde sakra-
tua –hiru bider sakratu, hainba-
tetan masakratu– Inperio Oto-
mandarren kontrolpean zegoen
ordura arte, baina berau eror-
tzean, inperioak galdutako lu-
rren partizioa adostu zuten



Frantziak eta Britainia Handiak, Sykes-Picot akordioarekin, Lehen Mundu Gerra amaitu aurretik. Britainia Handiak hartu zuen Palestina, «beti horren intereseko kolonoentzat», zehaztu zuen Abubakrak. Merkataritza bide garrantzitsuen zeharbidea zen, hiru kontinenteren arteko lotunea, Arabiar penintsulako petrolio, Suezko kanala.

Intereseko, baita ere, ordurako sortua zen mugimendu sionistarentzat, munduko juduak batuko zituen lur baten bila baitzebil. «Mugimendu sionista mugimendu politiko bat da, ez du zerikusirik erlijioarekin. Juduen kontrako jazarpena sortu zen, eta gero, genozidioa, Europan; baina gogoratu behar da ez Palestinan, ezta gainontzeko herrialde arabiar edo musulmanetan ere, ez dela egon juduen, kristauen eta musulmanen arteko jazarpenik. Gehiengoa, noski, musulmana zen, erlijio hau izan baitzen lurraldera iristen azkena. Ez dugu ukatzen: bai, juduak pasatu ziren Palestinatik. Horrek ez du esan nahi eskubidea dutenik munduko judu guztiak Palestinara joan eta bertako herritarrak kanporatzeko».

Sionistek bazituzten aukera gehiago (Angola, Madagaskar, Argentina), baina «Britainia Handiak Palestinako lurak okupatzeko konbentzitu zituen», esan zuen Abubakrak. Hala egin zuten, eta bi aldeak irabazle: erlijioaren aitzakiari tiraka, Israel izango zenaren hazia asmatu ahal izan zuten



Analisia irekitzen duen orrian, Jaldia Abubakraren erretratua. Gazan jaio zen eta Estatu espainiarretik ari da egun borrokan, Palestinaren askapenaren alde. Orri honek armada israeldarrak Gazaren kontra hilaren 21ean egindako erasoaren osteko irudia erakusten du. Israelgo hegoaldean hartutako argazkia da, Gazako Zerrendaren mugatik gertu.
Jon URBE | FOKU
John MACDOUGALL | AFP

sionistek mendebaldeko herrialdeen babesarekin, eta Ekialde Hurbilean aliatu fidel bat izango zuten aurrerantzean mendebaldeko estatu boteredunek.

Hasi ziren sionisten taldeak Palestina kolonizatzen; lehenengo kibbutzak, legez kanpo kokalekuak ezartzen, gaur Zisjordanian egiten duten bezala. Hasi ziren banda paramilitarrak entrenatzen, palestinarrak botatzen. Hasi ziren.

Palestinarrak gertatzen ari zenaren kontzientzia hartu zuten. Lur santua denez, «ohituta» zeuden jende atzerritarren etorrerarekin, sionismoak ez zuen turistekin edo herrian finkatzen ziren atzerritarrekin zerikusirik. Eta gatazkak hasi ziren.

1936an Matxinada Palestinarra hasi zen eta, horren banean, inoiz ezagutu den langile grebarik luzeena egin zen: sei hilabete iraun zituen. «Andreok [sionisten produktuek] boikotatzera deitu zuten, pro-

duktu alternatiboak ekoitzi zituzten eta piketeak antolatu zituzten greba garaian ateak irekitzen zituzten komertzioetan», azaldu zuen Madrilen bizi den aktibistak.

Zerk bukatu zuen matxinada 1939an? Bada, «Ekialde Hurbileko zenbait herrialdetan Britainia Handiak ipinitako monarkiek palestinarrak engainatu zituzten, esanez konponbide baketsu bat lortuko zutela». Ez zen horrelakorik gertatu.

Sortu da Israel

Salto bat denboran, ahaztu gabe mugimendu sionistak, intentsitate gehiagoz edo gutxiagoz, ez ziola utzi palestinarrak hil, zauritu, bortxatu eta jazartzeari. Sortu zen Nazio Batuen Erakundea (NBE), «iritsi zen giza eskubideen karta, izan behar genuen nazioarteko gizarte bat guztion giza eskubideak errespetatuko zituena, ez ze-

din errepikatu Bigarren Mundu Gerran gertatutakoa», esan zuen, ironiaz, Abubakrak. Britainia Handiak jada ez zuen gaitasunik Palestinara eraman zituen sionistek eragindako gatazkak kontrolatzeko, eta NBEren esku utzi zuen arazoa.

NBEk Palestinako egoera aztertu zuen eta bazituen txostenak, zeinak esaten zuten lur palestinarra ezin dela zatitu, gatazka beste modu batera konpondu behar zela.

Iritsi gara 1947ko azaroaren 29ra. NBE jada 50 estatu baino gehiagok osatzen dute, «horietako gehienak estatu kolonizatzaileak dira», adierazi zuen palestinarrak. Bozketa bidez, erabaki zuten Palestinako lurraldea bi estatutan banatzea: %55 proiektu sionistarentzat izan zen, nahiz eta orduan okupatu zituen lurak ez ziren iristen lurralde osoaren %6ra ere, eta biztanleria osoaren %30 baino ez baziren ere.



Herritar asko batu ziren azaroaren 9an Zumaiaiko Emakumeon Etxean, Jaldia Abubakra entzutera. Jon URBE | FOKU

Palestinarrak ez zuten ego-
kitu zitzaien %45a onartu
eta gatazkek jarraitu egin zu-
ten, harik eta 1948ko maia-
tzean mugimendu sionistak
Israelen independentzia de-
klaratu zuen arte. Gerra hasi
zen. «Lehenengo gerra har-
tan, Israelek ez zuen soilik
lurraldearen %55a okupatu,
baizik Palestinako Lurralde
Historikoaren %78a», gogo-
ratu zuen aktibistak.

«Ordurako, palestinarren
bi herenak haien lurraldetik
kanporatu zituzten, herrita-
rren erdia baino gehiago hil
zuten eta, geratu zirenak,
Gobernu militar baten pean
geratu ziren», esan zuen.

Familia palestinarrak zati-
tuta zeuden. «Borrokak in-
tentsitatea galdu zuen urte
batzuetan, jendea *shock*
egoeran zegoen. Itzuli nahi
izan zuten asko Jordaniako
mugan hil zituzten, beste ba-
tzuk kanpadendatan bizi zi-
ren mugan, armada arabia-
rrek indarra hartuko zain,
Palestina askatzeko borroka
zezaten», kontatu zuen Jaldia
Abubakrak.

1967an, Sei eguneko gerra-
ren garaian gaude. Ustez, he-
rrialde arabiarrek hasi zuten
gerra; Abubakraren arabera,
ez. Israel izan zen: «Arabiar
Liga Rabaten bildu zen eta
Marokoko erregeak, Mossad
[inteligentzia agentzia israel-
darra]rekin adostuta, bilera
zelatatu zuen, jakiteko zer ari
ziren prestatzen lider arabia-
rrak. Hortaz, sei egunetan ar-
mada arabiarrek garaitu zi-

tuzten, eta ez hori bakarrik,
Zisjordania, Gaza, Sinai, Go-
lan eta Libano hegoaldea
okupatu zituzten».

Geroztik, palestinarrak
diasporan antolatu ziren. Pa-
lestinarrak Aginte Nazionala
(PAN), Palestinaren Askape-
nerako Herri Frontea (PAHF)
eta Al-Fatah taldeek Palesti-
naren Askapenerako Erakun-
dea (PAE) sortu zuten, eta
errefuxiatu kanpamentue-
tan borroka armaturako an-
tolatzen hasi zen, Jordanian
lehenik. Borrokan jardun zu-
ten, harik eta 1971n, “Irail Bel-
tza” deritzon sarraskian,
Hussein errege jordaniarrak
herrialdetik kanporatu zi-
tuen arte. Libanoko mugan
ere saiatu ziren gerrilla pales-
tinarrak pizten, baina handik
ere bota zituzten, eta disper-
tsioak mugimendu armatua
ahuldu zuen.

Itun hutsak

1980ko hamarkadan, Pales-
tinan, herritarrek «errepre-
sioa, supremazismoa, arra-
zismoa, tratu txarrak,
torturak, atxilotzeak» paira-
tzen zituztela gogoratu
zuen aktibista gazatarrak.

Tankeen kontra harriak
jaurtitzen zituzten herrita-
rren irudiak, lehenengo In-
tifadakoak (1987-1991), iltza-
tuta izango dira oraino
hainbaten bisaletan. Ha-
rriak jaurtitzen zituzten
haurrei hezurak puskatzen
zizkieten soldadu israeldar-
rek. Isaac Rabinek eman
zuen hori egiteko agindua.
Bakearen Nobel Saria jaso
zuen 1994an.

Nazioartean sona izan zu-
ten irudiok, eta hasi zen
zerbait mugitzen. 1991n Ma-
drilen egindako Bake Konfe-
rentziak atzetik ekarri zuen
Osloko Ituna. Ezerezean ge-
ratu zen esperantza zantzu
hura: PAEren bizkar, Al-Fa-
tah alderdiko ordezkari-
tza batek sekretuan negoziatu
zuen israeldarrekin Norve-
gian, Abubakraren esane-
tan. Al-Fatah-k autoritate
maila bat lortu zuen, baina
ez zuen hitz egin errefuxia-
tuen itzulera –«herritarren
erdia baino gehiago gara,
bost milioi inguru», esan
zuen–, errefuxiatuen kanpa-
lekuez, ez zuen hitz egin Je-
rusalemekin zer gertatuko
zen, ezta 1948an okupatuta-
ko lurretan bizi diren eta

«apartheid sistema bat» pai-
ratzen duten palestinarren
inguruan ere.

1987ko Intifadaren testui-
nguruan, berriz, erresistentzia
islamikoko taldeak sortu zi-
ren, tartean, Hamas, eta
2006an hauteskundeak ira-
bazi zituen. «Jendeak ikusten
du eskolak sortzen ari direla,
familiak laguntzen dituela
eta okupazioari aurre egiteko
entrenatzen ari direla. Horre-
gatik, jendeak babesten ditu,
babesten duten ideologiare-
kin ados ez badaude ere. Ikus-
ten dute administrazio pales-
tinarrak ez duela aberastu
beste ezer egiten eta, bitar-
tean, Hamas borrokan dela»,
azaldu zuen palestinarrak.

PANekin gobernu batera-
tua osatzen saiatu zen, baina
honek «dena berarentzat
nahi zuen», Jaldi Abubakra-
ren arabera. Azkenean, zati-
keta gertatu zen. Gaza, Ha-
masen agintearekin, alde
batetik, eta Zisjordania, PA-
Nekin, bestetik. Eta 2007ko
blokeoak ghetto, kontzentra-
zio esparru, kartzela, bilaka-
tu zuen Gaza.

«Geroztik, Israelek erre-
presioa gogortu du, areago
[Benjamin] Netanyahu faxis-
tarekin. Urte hauetan na-
zioarteko komunitateak in-
punitate osoa aitortu dio;
kondena asko ditu, baina zi-
gorrik ez», deitoratu zuen
hizlariak.

Eta, halako batean, iritsi
zen 2023ko urriaren 7a, «ha-
siera» hura. Guk hemen bu-
katuko dugu. Tik-tak.